

# ek!

...eta kitto!

Euskara Elkartearen astekaria

2020ko maiatzak 8 • 1140. zenbakia

## ALBERTO ETA JOAQUIN DENON GOGOAN



### MULTIÓPTICAS

#### ZABALIK GAUDE

Gure optika **segurtasun neurri guztiez hornitu dugu** eibartarren ikusmen beharrei erantzuna emateko.

**Ohiko zerbitzu optikoak eskaintzen ditugu:** graduazio optometrikoa, begiko tentsioa...



ASTELEHENA - LARUNBATA  
**9:30 - 13:00**  
Arratsaldeak: kontsultatu

Bidebarrieta, 2  
Tel.: 943 20 05 22  
**EIBAR**

# Imajinatu Batxilergoa Eibarko La Sallen

✓ **Artezkoa**

✓ **Giza eta gizarte zientzietakoa**

✓ **Zientzietakoa**

Aurrematrikula zabalik:  
Maiatzaren 4tik 22ra



623189058



[www.lasalleeibar.com](http://www.lasalleeibar.com)



[azitain@lasalle.es](mailto:azitain@lasalle.es)



**Eskerrik asko**

Koronabirusa dela-eta, aste bi eman ditut Mendaron, eta eskerrak eman nahi dizkizuet egoera honetan lagundu didazuen guztioi. Eskerrik asko Eibarko anbulatorioko mediku eta erizainei. Eskerrik asko Mendaron hain ondo artatu nauzuen guztioi: zeladore, administrari, garbitzaile, laguntzaile, erizain eta medikuei! Eskerrik asko, benetan, hain gertu eta hainbesteko samurtasunez artatzeagatik. Zuek denak hor zaudete, lehen lerroan, dena ematen, eta irribarrea galdu barik. Momentu latzak bizi izan ditut ingresatuta egon naizen bi asteetan, baina zuei esker momentu horiek eramangarriagoak egin zaizkit. Hasierako egunak luzeak eta gogorak izan ziren, baina aurrera egi-tea lortu dut, eta berriro ere eskerrak eman nahi dizkizuet.

Espero dut egoera hau ahalik eta azkarren bukatzea, eta animo lanean ari zareten guztioi! Eskerrik asko!

Mari Carmen Pascual

**Azитайn / Barrena auzuan  
supermerkatu baten premiñan**

Eibarko Udalari zuzenduta,

COVID-19aren krisixak bistan laga dau elikadura merkatu bat (supermerkatua, ogi- esne- fruta- denda...) premiñazkua dala Azitain-Barrena auzuan. Auzo oso bateko eibartarrok (gure jubilauek barne) gertuen dakagun supermerkatu gabiz juaten, hain zuzen be Urkizuko Eroskira. Horrek kontsumitzaillioi illara luziak sortzia eragitten dau eta, horrekin batera, premiñazko elikagaixen erosketen kolapsua, gehixenetan. Hori holan dan bittartian, herrixaren beste aldian sei supermerkatu dagoz, metro karratu gitxiko eremu batian: Eroski, El Corte Ingles, Mercadona, Lidl eta Aldi. Gaiñera, supermerkatu hórretako bakotxa, bera bakarrik, Urkizuko Eroski baiño haundixagua da. Noiz arte segidu bihar dogu holan? Geu be eibartarrak gara!

Erantzun baten zain,

Josean Urkia

"Nabarmen geratu da haurrak eta zaharrak sobran zaizkion gizarte eredu dela gurea. Ez dakigu non sailkatu behar ditugun gizarte arau sinplifikatuan sartzen ez direnak, lan egiteko adinean dagoen erretratu robotean bere burua islatuta ikusten ez dutenekin zer egin. Hurrei helduon ordutegi, lan-prozedura, ebaluazio-presio eta ardurak eman dizkiegu eta, txanponaren beste aldean, adinekoiei haurren moduan hitz egiten ari gatzazkie. Erabakiak hartze-ko ahalmenez desjabetu ditugu eta kategoria batean zein bestean dagoen gaitasun, beharizan eta desioen aniztasuna bazterrean utzi dugu. Haurrak etxean nola zahartzen ari zaizkigun ikusi dugu, zaharrak umetu egin ditugun bitartean"

Pili Kaltzada, kazetaria

"55 ikertzailek osatutako talde batek testa egiteko sistema berria eta berritzailea aurkeztu, eta ez zuten txalo ofizialik jaso. Ez Eusko Jaurlaritzarena, ez Osakidetzarena eta ezta -gertutasunagatik eta erantzukizunagatik, are larriagoa-, EHUKo agintariena ere. EHUK ez du jendaurrean babestu erakundeko ikertzaileek bideartutako aurrerapen bat, testaren berri eman zuen prentsa oharrean EHUKen babesa izan zutela bazioen ere. 'Eman eta zabal zazu'. Eusko Jaurlaritzak ez du babestu unibertsitate publikoak elkarlanean egindako aurrerapen bat. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako herri-tar guztien unibertsitateak, haien zergekin ordainduak. 'Euskadi, auzolana'. Eta Biogunek bere laborategiak erabiltzeko egindako eskaintzak ere ez du erantzunik jaso.

Jakes Goikoetxea, kazetaria

**Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera**

**MUNDURA EKARRI** → Erditu, seme-alabak euki. "Holako semiak mundura ekartzia baiño lau libranko ogixak egittia be hobe dok".



Euskara Elkarteak

**ARGITARATZAILEA**  
...eta kitto! Euskara Elkarteak

**HELBIDEA**  
Urkizu, 11. 20600 Eibar

**TELEFONOAK**  
943 20 67 76 / 943 20 09 18  
603 598 285

**FAXA** 943 20 28 72  
**ASTEKARIAREN E-MAILAK**  
erredakzioa@etakitto.eus  
komunikabideak@etakitto.eus  
publizitatea@etakitto.eus

**ELKARTEAREN E-MAILAK**  
elkartea@etakitto.eus  
normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA**  
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,  
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi  
eta Silbia Hernandez

**ADMINISTRAZIOA**  
Marisol Uriarte

**KOORDINATZAILEA**  
Ana Aizpurua

**ERREDAKZIO-BURUA**  
Silbia Hernandez

**DISEINUA:**  
Maku Oruezabal

**ARGAZKI ARLOA**  
Malen Jainaga eta  
Malen Illarramendi

**HIZKUNTZA ARDURA**  
Juan Andres Argoitia eta  
Maider Aranberri

**PUBLIZITATEA**  
Itziar Albizu eta Belen Ulazia

**TELEFONOA**  
943 20 67 76

**AZALEKO ARGAZKIA**  
Silbia Hernandez

**BANAKETA-ARDURA**  
Idoia Labado

**TIRADA**  
7.450 ale

**INPRIMATEGIA**  
GERTU koop. (Oñati)

**COPYRIGHT-A**  
...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA**  
SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunikun)



## TUTULUMENDI



Idurre Iriondo



## Maskarak derrigorrezkoak dira garraio publikoan

>>> Astelehenaz geroztik derrigorrezkoa da maskara jarrita eramatea garraio publikoa erabili ahal izateko. Pedro Sanchez Espainiako gobernuko presidentek esandakoaren arabera, hamar milioi maskara banatuko dituzte garraio publiko sarean, herrietan eta baita boluntario elkarre batzuetan ere, horiek herritarren artean bana ditzaten. Horrez gain, alarma egoera beste hamabost egunez luzatzeko bere asmoa azaldu zuen eta, azpimarratu zuenez, oso garrantzitsua da datozen egun eta asteetan ere herritarrek babes neurriak hartzea eta arduratsu jokatzeari, birusaren zabalkundean gorakadarik egon ez dadin.

## Langile publikoak lan presentzialera bueltatuko dira

>>> Josu Erkoreka Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren berbetan, "helburua da datorren astelehenean, hilaren 11n, langile publikoak Eusko Jaurlaritzako lantokietara modu ordenatuan, mailakatuan eta segurtasun-baldintza zorrotzetan itzultzea". Horretarako, "Kontingentzia Plan" bat egin da, eta plan horrek uztartuko ditu, batetik, zerbitzu publikoa egitea eta, bestetik, zorrotzaz errespetatzea osasun-agintariek birusaren hedapena saihesteko emandako jarraibideak.

Martxoaren 17an, Osasun Publikoaren arloko gomendioei jarraituz, Eusko Jaurlaritzak erabaki zuen bere eraikinetan ahalik eta gehien mugatzea langile publikoen presentzia. Orduz



geroztik, eta gaur arte, lan presentziala % 20ra murriztu da.

Une honetan, funtsezko zerbitzu publikoa egiteko beharrezkoak eta ezinbestekoak diren pertsonak soilik joaten dira lantokira. Osasun Sailaren gomendioei jarraituz, deskonfinamendua hasi eta lanpostuetara mailaz maila itzultzen hasiko dira.

**Khôl Estilistak**  
Azido hialuronikoko ile-tratamendu berriak

**Khôl Estilistak**

Estaziño, 4 943 254776

**San Andres Gozotegia**

- tartak
- enkarguak
- etxera

Bidebarrieta, 28  
☎ 943 20 79 73



## Dendari eta ostalariei laguntzeko neurriak proposatu ditu Bilduk

>>> Koronabirusak eragin duen osasun krisiaren ondorioz Eibarko 300 komertzio txikik eta 155 tabernak eta jatetxek ateak itxi behar izan dituzte eta, horren aurrean, premiazko talka planak behar direla uste du EH Bilduk: “Aurtengo aurrekontuak sei hilabeteko bizitza izango du. Ezohiko egoera baten aurrean gaude eta 2020ko aurrekontua sortutako beharretara bideratu beharko litzateke”, esan du Gorka Errastik.

Bere ustez, “herritarrak erdian jartzea eta talka planak aurrera eramatea izan behar-

ko litzateke Udalaren ardura nagusia”.

Komertzio eta ostalaritza krisi-mahai sektorialetan esandakoari jarraituz, lau neurri nagusi zehazteko premia ikusi dute. Batetik, laguntza zuzenak, “azkarrak, hilabete hauetan sortutako zorrak gutxitzera bideratuak”. Bigarrenik, berrikuntzarako eta errealitate berri-egokitzeko laguntzak. Bi horiekin batera, tokiko kontsumoa sustatzeko laguntzak leudeke eta, amaitzeko, tokiko komertzioa eta ostalaritza babesteko sentsibilizazio kanpainak behar direla uste dute.

## Benicoba etxetresna dendak 60 urte beteko ditu martitzenean

>>> Datorren astean, martitzenean beteko dira 60 urte Juan Gisasola kalean dagoen Benicoba etxetresna elektriko denda zabaldu zutela.

Bezeroen errekonozimenduaz gain, 2012an Gipuzkoako Merkatarien Elkartearen esku-

tik saria jaso zuen. dendaren ibilbideari aitortza gisa.

Urteurrena ospatzeko zer-bait berezia egiteko asmoa zuten, baina gauzak bere onera itzuli arte ospakizuna atzeratzea erabaki dute. Zorionak eta urte askotarako!



# “Aurten bai, Eibarren 1.500 euskaraz”



## ERRENTA AITORPENA, aukeran, EUSKARAZ!

- **Autoliquidazio proposamena** onartzerakoan euskaraz egin nahi duzula esan.
- **Mekanizatua egiteko** ordua hartzerakoan euskaraz egin nahi duzula esan.
- **Internet bidez** egitean errenta programaren euskarazko bertsioa jaitsi Internetetik eta hobetsitako hizkuntza atalean euskara aukeratu.
- **Aholkularitzaren** bat aukeratzen baduzu, adierazi euskaraz egin nahi duzula.

EUSKARA BATZORDEA  
[www.eibar.eus](http://www.eibar.eus)





## Osakidetzak pixkanaka hasiko du jarduera asistentzialera buelta


>>> “Koronabirusak gure artean egoten jarraituko duela” ahaztu gabe, Osakidetzak, pixkanaka, jarduera asistentzialera itzultzen hasiko da. Osasun Sailetik adierazi dutenez, planak hainbat esparru bilduko ditu:

Ospitaleetako kanpo-kontsultei dagokienez, atzeratutako kontsultak hartuko dira eta, horien urgentzia aztertu ondoren, aurrez aurreko edo telefono bidezko kontsulta egin behar den ikusiko da. Lehendabizi, atzeratutako lehentasuneko kasuak aztertuko dira eta, ondoren, arruntak. Aurrez aurreko edozein kontsultaren aurretik telefono dei bat egingo da Covid pazienteak antzemateko.

Proba diagnostiko osagarrien kasuan, berriz, benetan behar diren probak lehenetsiko dira eta kontsultekin multzokatuko dira prozesua erabakigarriagoa izateko.

Programazio kirurgikoei eragingo die aldaketak: ebakuntza kirurgiko baten edo prozedura inbaditzaile baten zain dauden pertsonen, euren tratamenduaz arduratzen den mediku taldeak, telefono bidez, euren osasun-egoera baloratuko du, urgentzia eta kalkulaturako epeak zehazteko.

Lehen mailako arretari dagokionez, epidemiaren detekzio goiztiarrean eta kontrolean funtsezkoa izango da. Gainera, telefono bidezko arreta lehenesten jarraituko du eta osasun-zentroetan, pixkanaka, aurrez aurreko arreta berriro ezartzen hasiko da. Horrekin batera, *2 metro, batzen gaituen distantzia* sentsibilizazio-kanpainak jarri dute abian, urruntze soziala errespetatzeko beharra azpimarratzeko asmoz, “horrek birusa hedatzea ekidtingo duelako”.



## Etxetik kilometro bateko eremua markatzeko app euskalduna

>>> Android mugikorretarako aplikazio interesgarria sortu du Egoitz Aldakur informatikariak: Bizitokitik Covid-19 izeneko aplikazioak etxetik zenbat aldentzen zaren markatzen du eta oso erabilgarria da etxetik hurrekin irtetzeko, kirola egiteko edo buelta bat emateko orduan, hori egiteko duzun kilometro bateko perimetroa eskainiz. Aplikazioa Gaindegiak

argitaratutako web orrialdean inspiratuta garatu dute eta laster gaztelerazko bertsioan ere egongo da eskuragarri, Desde Casa Covid19 izenarekin. Garapen azkarreko app bat da eta, denboraz larri, ez du igaro oraindik Google Play dendaren barrera. Hortaz, apk fitxategia jaitsi behar da instalatzeko eta jatorri ezezaguneko aplikazioa baimentzeko aukera ezarri.

## Eibarko mapa toponimikoa eskuragarri

>>> Udaleko Obra sailak mapa toponimikoa egin du, gure hirian paseatzera joateko edo kirola egiteko muga non dagoen jakin nahi dutenen zalantzak argitzeko. Mapa udalaren web orrian dago eskuragarri eta bertan Eibarko udalerraren mugak xehetasun guztiekin ikus daitezke.



	<b>ROSANA</b> ILEAPAINDEGIA
	<b>943 120624</b>
	URKIZU PASEALEKUA. 7 - BEHEA

<p><b>PUBLI RESA</b> objeto publicitario</p> <p><a href="mailto:publiresa@publiresa.com">publiresa@publiresa.com</a></p>	Armagin, 3-5 beheak
	<p>merchandising</p>
	<p>serigrafia</p>
	<p>lanerako erropa</p>
	943 701 497 / 687 879 667



## Kirolari profesionalek entrenatu dezakete

>>> Kirolari profesionalek entrenamenduak egin ahal izango dituzte, banaka, aire zabalean eta bizi diren probintziako mugen barruan. Entrenamenduen iraupena eta ordutegia kirolerako sasoi fisikoari eusteko beharrezkoa dena izango da. Kirolari profesionalak direla egiaztatzeko erabili ahal izango da kasuan-kasuko federazioak

emandako kirol-lizentzia edo goi mailako kirolaria izatearen ziurtagiria. Entrenatzaile-lanak egiten dituen pertsona bat joan ahal izango da entrenamenduetara, baldin eta beharrezkoa bada eta osasun-agintariak adierazitako neurriak betetzen baditu, COVID-19a kutsatzea prebenitzeko gizarte-urruntzeari eta higienari dagokienez.

Kirolari federatuek, ordea, entrenamenduak egin ahal izango dituzte banaka, aire zabalean, egunean bi aldiz, 6:00etatik 10:00etara bitartean eta 20:00etatik 23:00etara bitartean eta bizi diren udalerriko mugen barruan. Kirolari federatuak direla egiaztatzeko kasuan kasuko federazioak emandako kirol-lizentzia erabili ahal izango dute. Bestalde, entrenamenduetan ezin izango da entrenatzailerik edo bestelako laguntzailerik egon.

## AUTUAN

### BEHEKO TOKIKO MASAJE ZERBITZUA

Beheko Tokia jubilatutako etxeko zuzendaritzak, "Eibarko Udalak Eudelekin izandako bilera eta gero", hainbat jarduerak eskaintzeari berriro ekingo diola erabaki du. Horren arabera, astelehenetik aurrera masaje zerbitzua emango dute, beti ere aurretik hitzordua eskatuta 659107023 telefono zenbakian (Iñaki).

### ZAINDU EIBARKO ZAINZA SAREA

Zaindu Eibarko zaintza sareak aste honetarako egitaraua "mimo osoz" prestatu du, Facebook eta Instagram bitartez (zainduzaintzasarea) kontzertuak, burua fresko eusteko gomendioak, kafetxoak eta ikasleekin elkarrizketa eskainiz.



**BATXILERGO  
ARTISTIKO-MUSIKALA**  
Elgoibar Institutuan



2020-2021 ikasturterako **AURREMATRIKULA** epea: maiatzaren 4tik 22ra



tel. 943 899 316  
013431aa@hezuntza.net  
www.elgoibarbhi.eus





## Orain dela urtebete horrelakoak ginen

Iaz ere hainbat aldaketa izan ziren gure herriko ohiko egitarauari eragin ziotenak. Udal hauteskundeak iragarri zizkiguten maiatzaren amaierarako eta horrek Galiziako Etxeak antolatzen duen Dia das Letras eta Klub Deportiboak prestatzen dituen Euskal Jaia aurreratzea ekarri zuten. Bestalde, Errebal Plataformak eta oposizioiko alderdi guztietako ordezkariak Errebalen lanen inguruko jarraipena egiten zuen batzordetik alde egitea erabaki zuten. Udaleko garbitzaileak lan-baldintza eskasak zituztela salatuz eta Udalarari aurpegiaratu zioten ardura nagusia. Enrike Zuazua matematikariak Alexander von Humboldt ikerketa-saria jaso zuen Alemanian eta, gure herrira bueltatuz, ...eta kitto!-k antolatutako 25. Ipurterre Ipuin eta Gutun Lehiaketakoak ere banatu ziren Hezkuntza Esparruan. XXXV. Debabarreneko Eskolarteko Antzerki Erakusketak ere abiatu ziren maiatzarekin batera.

**Argazkiak:** 1- Euskal Jaia. 2- Behin-behineko etena Errebalen Batzordean. 3- 25. Ipurterre Sariak. 4- Enrike Zuazua. 5- Dia das Letras. 6- Udaleko garbitzaileak kexu.



**E**gogain Gerontologia Zentroko langileek bi urte daramatzate euren lan-baldintzen eta nagusien eskubideen alde borrokan. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin tirabira ugari izan dituzte eta, bat-batean, koronabirusa iritsi da. “Hasiera batean kaosa izan zen”, Egogaineko langileek esan digutenez. “Alarma-egoera indarrean sartu zenean langileak oso galduta geunden, baina galduta geunden gainetik dugun jendea galduta zegoela ikusten genuelako. Ez dute agindu garbirik eman eta arazoak sortu ahala konpontzen joan gara”.

Urte hauetako protestetan hainbat aldarrikapen egin dituzte Egogaineko langileek eta horietako bat izan da lan-karga ikaragarri handitu dela. Beraz, hori gutxi balitz, Covid-19ak beste zama bat gehitu dio lan-karga horri eta langileek muturreko egoerak bizi izan dituzte azken bi hilabeteotan.

### Zabor poltsekin babesten

Koronabirusari aurre egiteko materiala falta zitzaien, besteak beste. Alarma-egoera ezarri zenetik apirilaren erdialdera arte, beharrezko babes-neurri barik ibili dira lanean. “Maskarak bererrerabili egin behar genituen, argi ultramoreekin hamar minututan deskontaminatzen ziren, NBEak oso urriak eta eze-gokiak ziren... Zabor poltsekin babesten ibili gara! Aldundiak esango du bagenuela segurtasun-materiala, bai, baina halanolakoa”.

Hasierako nahasmena kontrolatu ahal izan baino lehen, beste berri bat jaso zuten Egogainen. Donostiako Gurutze Gorriko egoitza koronabirusak kaltetutako jendearentzat prestatu behar zuten eta, ondorioz, hango egoiliarrek Eibarrera ekarri behar zituzten. “Gela hutsak eta ohe libreak genituen, baina ez dakigu jende guzti hori hartzeko langile gehiago kontratatatu zituzten edo ez. Ezetz uste dugu”. Beraz, langile kopuru berarekin 30 lagun gehiago zaindu behar izan dituzte ordutik.

# Zaindu beharreko zaintza

Hilabete zailak dira zaharren egoitzetako egoiliar eta langileentzat. Koronabirusak gogor jo die. Heriotzak eragiteaz eta langileen lan-baldintzak urritzeaz gain, hango bizimodua goitik behera aldatu du. Hasierako ekaitzaren ondoren barealdia iritsi da, baina barealdi ezegonkorra da, birus honen aurrean ez dagoelako erlaxatzeko aukerarik.



### Noraezean

Lan gehiagorekin eta kaos-egoera horretan, langileek ez zuten lana ondo egin ahal izateko lan-baldintzarik. “Zortzigarren solairua zabaldu zuten, jendea tokiz aldatzen zuten egunetik egunera, ez genekien zein egoiliar edo zaintzaile izan zitekeen positiboa, eta tentsio horrekin egiten genuen lan”.

Egoiliarren batek koronabirusaren sintomak izanez gero, tokiz aldatzen zuten; eta positibo eman zuten pertsona batzuk negatibo eman zutenean nahastu zituzten. Izan ere, goitik iristen zitzaien informazio urria kontraesankorra zen sarritan. “Ez zegoen agindu garbirik. Baina kexatzen baginen, komerrik”.

Langileek koronabirusaren probak egitea eskatu zuten hasieratik, baina ezetz erantzun zieten. “Probak fidagarriak ez zirela esan ziguten, eta horregatik ez zizkigutela egingo”. Testak lehen minutuan egin behar zirela diote langileek, gerontologikoan bizi zen egoera erreala zein zen jakiteko balio izango zuelako eta, hortik abiatuta, nola ekin zehaztu ahal izango zutelako. “Gainera, proba barik langileek ez genekien koronabirusa genuen edo ez, eta posible zen birusa zentroan zehar zabaltzen egotea. Zentzu horretan gaizki sentitu ginen, errudun bezala”.

### Gaur egun hobeto

Baina testak ez ziren lehen minutuan iritsi, ezta lehen hilabetean ere, eta Egogaineko langilekegoera horri aurre egiteko baldintza duinak eskatu zituzten. “Okerrrena da Eider Mendoza Gipuzkoako Foru Aldundiko bozeramaileak esatea gu gezurretan genbiltzala eta zifrak asmatzen genituela. Falta zena!”.

Langileen eskaerak aintzat hartzen ez zirela ikusita, idatzi bat bidali zuten prentsara. “Positibo kasu asko agertzen hasi ziren, zaintzaileak ere ingresatu zituzten, batzuk oso larri, eta ezin genuen horrela jarraitu”. Idatzia apirilaren hasieran bidali zuten eta erantzuna berehalakoa izan zen. Aste Santuan “material ugari” iritsi zen gerontologikora, eta egoiliar eta langile guztioi probak egin zizkieten.

Prentsara bidalitako gutuna inflexio puntua izan zen eta egoera dezente hobeto da ordutik. “Orain, langileak ez gara bakoitzari dagokigun solairutik mugitzen, segurtasun- eta osasun-material egokiak ditugu, hainbat neurri ezarri ziren (zirkuitu garbia – zirkuitu zikina)... Apirilaren amaieran iritsi zen hori, alarma-egoera hasi eta hilabetera, baina tira, orain hobeto gaude”.

Hartutako neurriek eragina izan dute eta positiboak jaitsi egin dira, baina zer gertatuko litzateke neurri horiek hasieratik



Egogain gerontologikoko langileek koronabirusari aurre egiteko lan baldintza duinak eskatu dituzte.

hartu izan balira? Espekulazio hutsa da, baina langileek uste dute ziurrenik koronabirus kasu gutxiago emango zirela eta, ondorioz, hildakoen kopurua baxuagoa izango litzatekeela.

Gaixoen eta hildakoen kopuruari dagokionez, langileek ez dakite zein den kopuru zehatza. "Langileen komitetik birritan eskatu dugu informazio hori, baina ez digute eman, ez dutelako datuak argitara ateratzerik nahi".

#### Egoiliarren egoera

Azken finean, langileak egoiliarrek zaintzeko daude eta egoiliarreko egoera hau nola bizi izan duten kontatu digute langileek. "Euretako asko ez dira konturatzan zer gertatzen den, baina

autonomoak direnek hasieran ez zuten ulertzen zergatik ezin ziren euren solairutik irten".

Egoiliarren egunerokoa aldatu egin da eta egunak luzeagoak egiten zaizkie orain. Gainera, koronabirusak adineko pertsonen eragin die batez ere. "Egoiliarrentzat eta familientzat ez da egoera ona".

Ezin dira bisitak egin, baina bideo-deiak egiten dituzte familiarrekin eta langileek uste dute hori garrantzitsua dela.

#### Pribatizazioaren bidean

Koronabirusak eragindako osasun-larrialdia berezia da, hemen inoiz ez da antzeko gazarik gertatu, baina Egogaineko langileen ustez horrek ezin du estali egoitzan egin den arazoa-

**"Hasieran kaosa izan zen. Langileak oso galduta geunden, agintariak galduta zeudela ikusten genuelako"**

ren kudeaketa txarra. "Hau ez da gauza puntual bat, hau arazo estrukturala da. Koronabirusak arazoa azaleratu du, beste barik".

Hainbat enpresa eta erakunde zaharren egoitzetan negozioak egiteko bideak ikusi dituztela diote langileek, eta Egogainen dituzten arazoak egiturazkoak direla.

Sektorea pribatizatu dela salatzen dute, "egoitzak ixten dihardute putre-funtsen esku lagatzeko", eta Egogainek pribatizatze bidea hartu duela diote, horrek ekarri ditzakeen ondorioekin. "Dirua bakarrik ikusten dute eta ez zaintzaren kalitatea".

Azpikontatazioa da nagusi Egogainen eta koronabirusari aurre egiteko sasoian langile ugari pasa dira gerontologikotik. "Enpresa hauek ABLE (ETT) batek bezala funtzionatzen dute eta egun batean pertsona bat



## Adelaida Larrañaga Berasqueta

*Maiatzaren 2an hil zen, 90 urterekin*

**"Beti izango zara gure oroimenean"**

**Emmaren lagunak**





Osasun larrialdiaren lehen hilabeteetan segurtasun- eta osasun-neurri eskasak zituztela salatu dute Egogaineko langileek. MIKEL ASKASIBAR (DIARIO VASCO)

bidaltzen dute, hurrengo egunean beste bat eta etzi beste bat. Batzuetan ordu pare bat bakarrik lan egiteko. Horrela zaila da lana ondo egitea. Egunero pertsona berria datorrenez, beti erakutsi behar diozu lana nola egin”, diote langileek.

#### Baloratu gabeko lana

Agintariek bultzatzen duten sistema horrek sortzen dituen lanpostu motekin kritikoak dira Egogaineko langileak. “Nolako bizi-kalitatea eskaintzen zaie lan-baldintza horietan lan egiten duten langileei? Nola kontziliazioa izan dezakete langile horiek? Zaintzaren sektoreari ez zaio garrantzirik ematen, ez da behar den bezala baloratzen”, euren ustez.

**“Posible zen birusa zentroan zehar banatzen ibiltzea. Zentzu horretan gaizki sentitu ginen, errudun bezala”**

**“Hau ez da gauza puntual bat, arazoa estrukturala da. Koronabirusak arazoa azaleratu du, beste barik”**

“Egoiliarrei duintasuna ematen saiatzen gara euren bizitzako azken momentuetan, baina kalitatezko zaintza bat emateko lan-baldintza duinak eskaini behar zaizkie langileei”, diote. Horren erakusle dira azken

urtean Egogain utzi duten 18 langileak (ia guztiak bitarteko izaera zutenak).

Eskertzen dituzte egun hauetan herritarrek eskaintzen dizkieten txaloak eta agintari politiko batzuen asmo onak,

“baina ez dira ekintzara pasatzen”. Zaintza sektorean dagoen prekaritatea ez da txaloekin eta berba politekin amaitzen. Benetako neurriak eskatzen dituzte.

Egogaineko langileak egoera horri buelta ematen saiatzen ari dira. Ondo antolatu dira euren eskubideen alde borroka egiteko eta erronka bota diote agintariei, baina langile berriak sartu-irtenean dabilenez, zaildu egiten da langileen batasuna lortzea, guztiok batera borroka egin ahal izateko.

Koronabirusaren aurkako borrokan buru-belarri dabil-tza orain, poliki-poliki aurrera egiten, baina ez dute beste borroka alde batera utziko. Lan eta bizi duina eskatzen jarraituko dute. ■

## AITOR ERRASTI OLALDE

**“Agur, tio: izar berri bat piztu zitzaigun maiatzaren 4ko egunsentian.**

Zure begirada argia eta ahots xamurra itzali ostean, elkarrekin bizitako momentu zoragarriak hainbeste izan dira, betirako gordeko ditugula gure bihotzetan”

**Zure bilobak: Paula eta Juan, Laura eta Haritz**





# Elkartasunez jositako maskarak

Eguazten goiza da eta etengabeko joan-etorria dago 'Arreglos Susi' dendan. Maskarak doan banatzen dituzte barruan, Eibarko jostun talde batek egindako maskarak. Dendan sartzen den jendeak esker onez hartzen ditu gaur egun hain preziatuak bihurtu diren maskarak, eta eskerrik beroenak emateaz gain, donazioa egiten dute. Jostun taldeak bultzatutako elkartasuna bueltan dator. Elkartasun-sarea josi dute.

**K**ris Peredak San Andres zaharren egoitzan egin zuen lan eta bertako langileek material beharra zutela ikusi zuen sare sozialetan. Besteei laguntzea ez da gauza berria Krisentzat, 'Noupops' olagarro solidarioen enbaxadorea baita, eta ekimen horretan laguntzen dion jendearekin harremanetan jarri zen San Andres egoitzako langileentzat maskarak egiteko.

Poliki-poliki sarea zabaltzen joan zen eta 'Arreglos Susi' dendako Susana ere batu zen. "Alarma egoerarekin denda itxi behar izan nuen eta amorratuta nengoan. Hala ere, indar hori beste batzuei laguntzeko erabili nahi nuen eta maskarak egitea zoragarria iruditu zitzaidan", esan digu.

'Oihal' dendako Cristina, 'Kinkila' mertzeriako Sonia eta Susana taldean zeudenez, oso baliagarriak izan ziren eurek eskainitako baliabideak. "Denda guztiak hustu genituen", dio Krisek, eta orain Juan Gisasola kaleko 4. zenbakiko 'Arreglos

Susi' denda banatzeko dituzte maskarak. Datorren astean berriz zabalduko dute denda, "beraz, eguazten eta barixakuetan 10:00etatik 13:00era jaso ahal izango dira maskarak".

## Udalaren beharrak asetzen

Udalaren kolektiboentzat hasi ziren maskarak egiten. "Gizarte-langileek, udaltzainek, aurrez aurreko arreta eskaintzen duten langileek eta beste hainbatek ez zuten maskararik", dio Krisek, eta 800 maskara egin zituzten eurentzat.

Jostun taldea pozik zegoen egindako lanarekin, baina jende guztiarengana heltzea zen euren helburua. Beraz, Udalarri elkarlanean jarraitzeko proposamena egin zioten eta Udalak babes osoa eskaini zien, arlo logistikoan zein ekonomikoan.

5.000 maskara baino gehiago egin dituzte eta hiru aste daramatzate maskarak banatzen. "300 maskara inguru entregatu ditugu egunero", Krisek dioenez.

## 5.000 maskara baino gehiago egin dituzte eta 300 inguru banatu dituzte egunero

### Elkarte gastronomikoetako mantelak

Hasieran hamar jostun zeuden taldean, baina elkartasun-sarea hazi egin zen eta beste hamar batu ziren. "Gainera, eskaera handia genuen eta taldean geundenen artean ez ginen gai behar zen maskara kopurua sortzeko".


Norberak bere etxean egiten ditu maskarak, "bakoitzak ahal duena", eta udaltzainak ardurtzen dira logistikaz. "Materiala etxera ekartzen digute eta eginda dauden maskarak jasotzen dituzte".

Jostunek euren lana eta trebezia herriaren esku laga dute, baina materiala behar da maskarak egin ahal izateko eta hasieran hori lortzea izan zen arazoa. "Ez genuen gomarik eta oihalik aurkitzen, elkarte gastronomikoetako jendea etorri zen arte". Elkarte gastronomiko batzuetan dauden mantelak tnt materialekoak dira eta oihal hori behar da maskarak egiteko. "Hiru geruza erabili ohi ditugu, mantelaren lodieraren arabera".

### Kalitatezko maskarak

Maskarak esterilizatu egin behar dira lehen aldiz erabili aurretik. Horretarako, garbigailuan garbitu behar dira 60º-ra xaboiarekin eta lixibarekin; edo eskuz ur beroarekin, xaboiarekin eta lixiba tanta batekin, 5 minutuz, eta gero uretan irakiten laga. "Maskarak berrirabili egin daitezke eta erabiltzen diren bakoitzean garbitzea da egokiena".

Maskara hauek ez dute %100ean babesten, baina



Helduentzako eta haurrentzako maskarak egin dituzte.

eragingarriak dira. "Maskara kirurgikoen eta ezer ez eramatearen artean daude, baina maskara kirurgikoengandik

hurbilago", Krisek dioenez. TNT izeneko oihal-mota maskara kirurgikoetan erabiltzen den bera da. "Gure maskara

## "Gure maskarak jarritz gero, ez duzu beste pertsona bat kutsatuko"

jarriz gero, ez duzu beste pertsona bat kutsatuko, maskara kirurgikoekin gerta daitekeen bezala".

### Jendearen esker ona

'Arreglos Susi'-n ez dago etenik, baina etxean dauden jostunek ez dituzte dendako joan-etorriak ikusten, eta eurentzat garrantzitsua da jendearen berba politak eta esker ona jasotzea. "Jendeak esaten dizkigun gauzak WhatsApeez bidaltzen dizkiegu jostunei eta horrek lanean jarraitzeko indarra ematen die", dio Krisek.

Donazioetatik jasotako diruarekin materiala ordaindu ahal izango dute eta, dirua eta materiala sobratzen bada, herriko kolektibo zaurgarriei emango diete.

Jostunek modu positiboan begiratzen diote etorkizunari eta herrian zabaldu den elkartasunak jarraipena izatea espero dute. Eurek eman dute lehen puntada. ■

I. Ojanguren, 2



Tel. 678 746 617

KONTRAKTUREN AURKAKO MASAJEA ETA O.M.T.

KIROL- ETA ERLAXAZIO-TRATAMENDUAK

MIN MIOFASZIALAREN AURKAKO ZITADA LEHORREKO TRATAMENDUA  
INDIBA TRATAMENDUAK

Pariss



Gizonezkoendako Ileapaindegia

San Juan, 9 - 1. esk.

Telf. 943 70 11 98



Eva Alberdi  
EVA ALBERDI

## #liburutegiaetxean

Gure lanbidean asko erabili da **"berritu edo hil"** esaldia, baina gaur egungo egoeran are nabarmenagoa da hori, gure publiko fisikoa galdu dugulako eta haien etxeetara, haien mundu birtualera atera behar izan dugulako beraien bila.

Ikastetxeak itxi eta berehala zarratu behar izan genituen guk ere gure ateak, ikasleak beren lantokirik gabe utzita, haurrak haur-liburutegiko oso isiltasun gutxiko girorik gabe, Internetera konektatzen datozenak horretarako aukerarik gabe eta irakurketa-klubetako gure solaskideak eta hizkuntzak praktikatzeko taldeak beren jarduerarekin jarraitzeko bildu ezinik. Zer esanik ez egunero egunkaria irakurtzera etortzen ziren guztiei buruz. Hor daude, gurutzegramak egin gabe egun hauetan guztietan.

Baina itxi dugun arren, ez gara liburuak ordenatzen bakarrik geratu, zerbitzua ematen jarraitu dugu, hori bai, birtuala eta gure etxeetatik.

## "Zerbitzua ematen jarraitu dugu; hori bai, birtuala eta gure etxeetatik"

Web orrian eta sare sozialetan dugun presentzia digitala sustatu dugu, erabiltzaile birtualei —azken aste hauetan asko ugaritu direnak— informazioa zabalduz, partekatuz eta elkarrengian arituz.

Gainera, ehunka alta egin ditugu **eLiburutegia** Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen mailegu digitalerako plataforma erabiltzeko. Nahiz eta gure irakurleek ezin duten apalen artean aukeratu zein liburu irakurri nahi duten, eskuragarri dagoen liburu digitalen eta filmen katalogora jo dezakete etxetik (20.000 liburu eta 15.000 pelikula inguru) eta doan eskuratu sareko edozein liburutegitako txartela edukita. Eta asko dira horren inguruan galdetu digutenak. Txartela oraindik egin ez baduzu eta interesatzen bazaizu, idatzi liburutegia@eibar.eus helbidera eta sarbidea emango dizugu.

Irakurtzeko gomendioen bat edo beste egin dugu, etxeko txikientzako jokoak eta heziketa baliabideak zabaldu ditugu eta gure jarraitzaileei erronkak bota dizkiegu konfinamenduko egun aspergarri hauetan argazkiak atera ditzaten galtzerdietan liburu baten ondoan daudela. Eta ez hori bakarrik, Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzeraino ere iritsi gara, publiko birtual horri eskatuz irakurri bitartean grabatutako bideo bat bidaltzeko, edo ipuin bat kontatzeko, haurren kasuan bezala.

Badakizue non gauden. Gure ohiko telefonoan eta posta elektronikoan eta liburutegiko WhatsAppen (688 69 17 33). Idatziezaguzu eta esan nola lagundu ahal dizugun. **#liburutegiaetxean** egitasmoaren gure **zerbitzu-gutunean** baldin badago, pozik egingo dugu.



Iñaki Ugarteburu  
IÑAKI UGARTEBURU

## Botila erdi beteta

Betidanik baikorra izan naiz, eta orain inoiz baino optimistagoak izan behar dugulakoan nago. Demaseko astindua jaso dugu, milaka edota milioika proiektu geratu dira edo geratuko dira bidean; senitarteko edo galdutako lagunak, pikutara joan diren negozioak edo talde-egitasmoak...

Ezin ditugu ahaztu, eta ez ditugu ahaztu behar.

Baina aro berri baten aurrean gaude, erronka ugari ditugu parez pare, pertsonalak eta baita taldekoak ere, eta horiei aurre egiteko jarrera positiboa izatea proposatzen dizuet.

Uste dut gehienok gutxienez ikasgairen bat atera dugula: zein ondo bizi garen Euskal Herrian, zer gutxi baloratzen dugun normaltasuna, zein beharrezkoak diren lagunak...

Eta hemendik aurrera zer?

Arriskua hor dago, neurriak hartu behar ditugu normaltasun berrira egokitzeko, eta ez dakigu noiz arte, baina egoera berri honetaz disfrutatzeko gai izango gara, seguru.

Kirol arloan erabateko aldaketa izan dugu, hain soziala den ekintza, banakako ekintza bihurtu da zazpi aste hauetan, eta nahiz eta mugatua egon, lagungarria izan delakoan nago. Maiaztetik aurrera kalean berriz ere jarduera fisikoaz eta kirolaz disfrutatu ahal izango dugu, momentuz banaka edo familian, aurrerapausu garrantzitsua.

Gure herrietako kiroldegien eta gimnasioen irekiera ematen du aste gutxi batzuetan etor daitekeela, baina pentsatu behar dugu mugak izango dituela. Instalazioetako aforoak heren batera edota erdira murrizten badira, irizpideak jarri ahal izango dira sarrerak mugatzeko: abizenak, bizi garen kalea, aurre izen-ematea. Beharbada egun, ordutegi eta espazioa edo makina zehatza erretserbatu beharko dugu. Ez da joan zen urtean genuena, baina azken asteetan izan duguna baino askoz gehiago da. Eskaintza errealitate berrira egokitu beharko da.

Eskola-kirola amaitu da eta kirol federatua ere denboraldia amaitu dela esan daiteke. Ikusiko dugu noiz eta nola hasiko den hurrengo denboraldia.

**"Kiroldegien eta gimnasioen irekiera ematen du aste gutxi batzuetan etor daitekeela, baina pentsatu behar dugu mugak izango dituela"**

inmobiliaria

IbaiOndo

Home Staging



Bidebarrieta, 24  
Tel. 943 201213

www.inmoibaiondo.com  
ibaiondo@inmoibaiondo.com



orain

## HOME STAGING: krisi-sasoirako formula

Krisi-sasoietan EZ DAGO Home Staging formula  
BEZALAKORIK saltzeko eta erosteko orduan.

Etorri Ibai-Ondo Inmobiliaria Home Staging-era,  
adituak gara-eta marketing inmobiliario teknika horretan.

DOANEKO!!!! azterlana egingo dizugu.  
KRISI-SASOI HAUETAN GUZTIOK GOAZ ESKUTIK.

Bisitatu gure denda (inmobiliariaren ondoan).  
**HARRITU EGINGO ZAITU!!!**



lehen

Maiatzaren  
**11** tik

# ZABALIK

Animo eta aurrera!!!

ego-gain, 6  
**KON  
TENT**  
943 11 86 91



Oskar Moralesek lehen pertsonan bizi ditu Zaldibarko zabortegiaren hondamendiaren ondorioak.

<<< OSKAR MORALES • Eitzaga auzoko bizilaguna >>>

## “Ez dugu ikusten zabortegian plan zehatza dagoenik”

Eitzaga auzoan bizi da Oskar Morales ermuarra duela 10 urte inguru. Zabortegiko luizia gertatu eta gero, bertako bizilagunek batzea erabaki zuten, eta Morales da 40 auzokide horien kezkak eta eskaerak zabaldu eta bideratzeko ardura hartu duena. Apirilean sei puntuz osatutako dokumentua kaleratu dute. Dorleta Vidal kazetariak elkarrizketa hau egin dio Ermuko DROGETENITTURRI aldizkarian.

### Zein da auzoko errealitatea gaur egun?

Hiru hilabete pasatu dira, eta auzoa kamioiez josita dago, bertako bidea erabiltzen delako Eitzaga Etxeberria baserriraino heltzeko. Egia da azken aste hauetan kamioen kopurua asko jaitsi dela, baina ez dakigu behin-behineko erabakia den edo berriro lehengo martxa horretan hasteko asmoa daukaten. Ez digute informaziorik ematen. Baserri horren ondoondoan base moduko bat dago,

eta han biltzen dira ertzainak, emergentzietako pertsonala, teknikariak, ingurugiroko langileak, Ura agentziakoak, zabortegian lanean daudenei arropak jasotzen dizkieten enpresakoak, zaindariak... Horrek trafiko itzela eragiten du egunero, bai gure auzoan bai Ermuko San Lorentzo eta Zaldibarko Sallabente auzoetan ere.

### Kamioien joan-etorriak ere salatu dituzue, ezta?

Bai, kamioiena gehiegizkoa

### "Herritarrei informazio garbia ez emateak hori dakar: erakundeengan konfiantza falta"

da, eta batez ere hori salatu nahi izan dugu. Esan ziguten zaborra gordeko duten ziegak eraikitzeko kamioiak pasatu behar zirela, baina jasanezina da egunean 100 lan-kamioitik gora hemendik igarotzea, aurretik aipatutako langileen kotxe eta kamioi guztiez gain.

Ziegak eraikitzeko materiala eramateaz gain, zaborra ere garraiatu dute kamioi horiek? Ez. Badakit kalean zurrumurru hori egon dela, baina hemendik

ez da pasatu zaborra zeraman kamioirik. Estalita joan arren, nik etxetik ikusten nituen, eta txintxorrez beteta igotzen ziren eta hutsik jaitsi. Herritarrei informazio garbia ez emateak hori dakar: erakundeengan konfiantza falta, susmo txarrak hartzen dira...

**Auzokoen kezkak jasotzen dituen dokumentua sortu duzue. Zein da honen helburua?**  
Dokumentua sortu dugu erakundeetatik ez digutelako informazio eguneratua helarazten. Zaldibarko alkateak esaten digu ez dakiela ezer eta dago-kion erakundearen informazio hori eskatu dezala nahi dugu.

**Eusko Jaurlaritzak ere ez du zabaltzen egiten ari den lanen inguruko informaziorik?**

Bai, astean behin Irekia atarian buletina kaleratzen du. Baina gure ustez informatzea da herritarren galderei erantzutea ere. Informazio asko kamioilariak ematen digute, atera kontuak! Eta arazoa da ez dugula ikusten plan zehatza dagoenik. Duela gutxi ETBren bitartez jakin genuen 4-5 astez jarraituko dutela kamioiek hemendik pasatzen. Hasieran 2 aste esan ziguten, eta jada 8 igaro dira. Orain beste lauzpabost diote... Badakigu zabortegean zeuden barne bide batzuk eta Olaerregako sarre- ra konpondu dituztela. Nahi duguna da kamioiak zabortegeko jatorrizko bidea erabiltzea eta gure etxe inguruetatik ez pasatzea

**Dokumentuaren lehen puntuan luiziaren ondorioz desagertutako langileen gorpuak**

## "Dokumentua sortu dugu erakundeetatik ez digutelako informazio eguneratua helarazten"



**bilatzeko ahalegin handiagoa aldarrikatzen duzue.**

Badakigu horretan dabiltzala, eta ez dela lan erraza, baina beharrezkoa deritzogu ahal duten guztia egitea.

**Bizilagunei azterketa medikoak egitea ere eskatzen duzue. Uste duzue zuen osasunean eragina izan duela zabortegeak?**

Bai, 10 urte baino gehiago egon da zabortegea martxan, eta behin baino gehiagotan ikusi dugu bertan kea. Auzoko baserri batzuk zabortegetik oso gertu daude, eta haiek usaina hartu eta hazkura izaten zuten eztarrian sarritan; beste baserri batzuk, ez gaude hain gertu; baina horrez gain, San Lorentzon eta Sallabentzen zabortegeko kea urteetan arnastu duten bizilagun mordoak dago. Ez dakigu ze puntura arte egon diren eta dauden oraindik ere dioxinak eta furanoak airean. Kontrolik

ez denez egon, jakin nahi dugu aire kutsatu horrek gure osasunean eragina izan duen.

**Airearen kutsadura lotuta dago uraren, luraren eta animalien kutsadurarekin. Egindako analisien datuak dituzue?**

Ez. Esaten digute guk ez daki-gula interpretatzen, eta alarma ez sortzeko-edo ez dizkigute emaitzak ematen.

**Zuen kabuz analisiak egitea pentsatu duzue?**

Bai, ez garelako fidatzen, baina zaila da. Dena ertzainez josita dago, eta koronabirusaren kontuarekin ezin gara etxetik irten. Gainera, dirutza da. Udalari eskatu genion, eta esan zigun dirua bazegoela kontraanali-siak egiteko, baina zain gaude.

**Koronabirusak bigarren planoan utzi du zabortegea?**

Noski, larrialdi egoera izan da eta ulergarria da. Baina ez da

ahaztu behar familia bat etxetik kanpo dagoela duela hiru hilabete, eta inork ez diola esan noiz bueltatu ahal izango den.

**Bizilagunok adostutako dokumentuaren azken puntuaren ardatza da hondakindegia emango zaion konponbidea. Hau da, bi ziega eraikiko direla bertan zabor guztia gordetze-ko. Nola balioztatzen duzue erabaki hau?**

Uste dugu zentzugabekeria dela ziega bat eraikitzea Etxebarri baserriatik 100 metro baino gutxiagora. Ziega hori behin-behinekoa dela diote, eta behin-behinekotasun hori idatziz nahi dugu. Uste dugu beste behin Eitzaga auzoa sakrifikatuko dutela, inork ez duelako zabor hori jaso nahi.

**Ezbeharra saihestu zitekeela uste duzue?**

Jakina. Gertatukoak erakutsi digu ezin direla zabortegeak enpresa pribatuaren esku laga. Verter Recyclingen kasuan, behintzat, dirua izan delako lehentasuna, ez zentzuz jokatzea. Bestalde, ez dugu ulertzen horrelako mendi magal batean hondakindegia bat eraikitzea, eremu lau batean izan beharrean. Eta azkenik, erakundeek jokabidea dago. Alde batetik bere garaiko Udalak ez zuen eragozpenik ipini zabortegea eraikitzeko; bestetik, Eusko Jaurlaritzak ez du inolako kontrolik eraman. Susmoa daukagu amiantoaz gain, beste edozein hondakin botatzen zela zabortegean. Kamioiak oso urrutitik zetozen, zaborra hemen lagatzea oso merkea zelako eta ez zegoelako inolako kontrolik.


**NEREA GALLASTEGI AIZPURUA**  
2015-V-5



**BOST URTE NEREA GABE**

**"Gure bihotzetan jarraitzen duzu"**

ZURE FAMILIA



Hiru hilabete, 90 egun bete ziren maiatzaren 6an Zaldibarko Verter Recycling zabortegian luizia gertatu eta Joaquin Beltran eta Alberto Sololuze, bertako beharginak, ezbeharraren ondorioz hil eta zaborraren azpian desagertu zirenetik. Erreskate lanak berehala hasi baziren ere, hainbat gorabehera tarteko, behin baino gehiagotan eten beharizan dituzte eta, nahiz eta bilaketa lanak egiten ari den dispositiboak lanean jarraitu, oraindik ez dituzte bi langileen gorpuak aurkitu.

Gertatutakoa gogoratze-ko hainbat ekintza egin ziren eguaztenean, Zaldibar Argitu plataformak deituta. Goizetik hasita eta arratsaldera bitartean, Eibar, Zaldibar, Elgeta, Ermua, Markina eta Zallako plazetara lorak, marrazkiak, kandelak eta bestelako oroigarriak eraman zituzten herritarrek, horretarako propio prestatutako guneetara. Horrekin batera, Zallan, Beltran bizi zen herrian, txalo jotzea egin zuten arratsaldean, haren senideek deituta. Eta 20:30ean, berriz, Euskal Herriko leiho eta balkoiak irten ziren herritarrek, lapikoak eskuan hartuta, Zaldibarren gertatutakoa salatu eta horren inguruan protesta egiteko.

Izan ere, eta Zaldibar Argitu herri plataformatik behin eta berriz adierazi duten moduan, otsailaren 6an ezbeharrak gertatu zenetik, instituzioen eta enpresaren beraren azalpenen zain daude eta, horrez gain, gertatutakoaren aurrean erantzukizunak hartzea eskatzen dute. Jokin Bergara plataformako

# Hiru hilabete Alberto eta Joaquin barik

Eguaztenean bete ziren hiruhilabete zabortegian Alberto Sololuze eta Joaquin Beltran desagertu zirenetik. Hori gogoan, Zaldibar Argituk deituta, bi langileen omenezko lore eskaintzak egin ziren Untzagan, eta baita Zaldibar, Elgeta, Ermua, Markina eta Zallako plazetan ere. Horrez gain, lapiko jotzeak egin ziren, otsailaren 6az geroztik zabortegiko bi langileak desagertuta daudela salatze eta protesta egiteko.



kidearen berbetan, "orain dela hilabete bat edo bi sentitzen ginen bezala, berdin sentitzen jarraitzen dugu, oraindik azalpenik ez dugulako jaso. Aldatu den gauza bakarra orain konfinatuta gaudela da".

Luizia gertatu zenetik, hondakindegia egonkortze aldera, zaborra handik ateratzen ari dira. Eitzagako bizilagunek orain dela egun batzuk salatu zuten lan horretan dabilzan kamioien joan-etorriak etenbarrakoak direla, baina herritarrek ez dakite zer ari diren egiten bertatik ateratzen ari diren zabor guztiarekin, kamioiak nora joaten diren...

Orain dela pare bat aste Eusko Jaurlaritzak iragarritakoa-ko arabera, Verterren kanpo ikuskaritza bat egingo dute, "zabortegian ingurumen baimen integratuak ezarritakoa betetzen ote zen egiaztatzeko". Hala ere, herritarrei azalpenak beste modu batean eman behar zaizkiela salatu nahi dute Zaldibar Argitu plataformatik: "Erantzukizun politikoak hartu behar dira. Lortu dute denboran atzeratzea, eta ez dirudi mugimenduak egingo dituztenik". Besteak beste, Eitzaga auzoko lurretan hondakindegia bat eraikitze baimena nork sinatu zuen jakin nahi dutela dio plataformako bozeramaileak, edo "azken urteetan zergatik ez zuten kontrolatu zabortegiaren jarduera". Horrelako galderen erantzunak "kazetariak egingako lanari esker" jaso arren, adierazpen ofizialen baten zain jarraitzen dutela gaineratu du. Oso bestelakoa da, ordea, Iñaki Arriola Ingurumen sailburuaren iritzia. Eguaztenean bertan



**CITROËN**  
Zearreko buelta, 3 zkia. - ERMUA

**Autos Amedi**

SALMENTA eta  
KONPONKETA

autosamedi@telefonica.net

717 067 879  
943 170 414

ileapaindegia

**DOLLS**

estilistak

Julian Etxeberria, 7

943 033 967



PEDRO ALBERDI

### Ahantzura

Adituek behin eta berriz ohartzazten digute gaur egungo bizimoduak arlo batzuetan abiada eroa daramala, eta abiada hori gelditu edo moteldu ezik, ezin dugula gauza onik espero etorkizunetik. Eta gaitz horren adibide moduan, hedabideetako albistean arintasuna aipatu ohi dute: gaur egundoko garrantzia duena bihar ez du inork gogoratzen. Albistea albistean

gainean, eta izugarrikeria izugarrikeriaren gainean, harritzeko gaitasuna galduz omen goaz. Milan Kundera idazle txekiarrak esaldi borobil horietako bat utzi zigun: *Boterearen aurkako borroka ahantzuraren aurkako borroka da.* Eta eranskin gisa, beste honako hau: *Ezkutatzea eta errudun sentitzea porrotaren lehen seinalea litzateke.* Bazekien, bai, zertaz ari zen, hori zioenean, estalinismoaren diktadurapean bizi izandako eskritoreak!  
Gaur, maiatzaren 6a, hiru hilabete da Alberto Sololuze eta Joaquin Beltran lanean desagertu zirela. Eusko Jaurlaritzako bozeramaileak esan eta esan ari dira

gubernua ahal den guztia egiten ari dela eta erreskate-langileek fin-fin dihardutela desagertuen bila. Bego eta bedi.  
Halatan, bada, Alberto eta Joaquinen desagertuak bere horretan dirau, eta hori ez da berria, ez da albistea, nahiz eta bidegabekiariaren tamainak orain arteko marka guztiak hautsi dituen: *Nola da posible bi beharginen gorpuek oraindik zaborpean segitzea?*  
Bien bitartean, apirilaren 28an, aurtengo Laneko Segurtasun eta Osasunaren Nazioarteko Eguna ospatu berri dugu. Zaldibarko zabortegean ospatu ere, haren sinbologia guztiarekin, eta honako lelopean: *Lan Osasuna bermatu,*

*bizitza defendatu.* Badago, bai, zer bermatu eta zer defendatu, alajaina, laneko segurtasunaren esparruan! Baita zer salatu ere; OSALANEN jarrera, adibidez. Izan ere, laneko segurtasun- eta osasun-politikak kudeatzea helburu duen erakundeak uko egin zion Alberto eta Joaquinen senideekin biltzeari, hondamendia gertatu ostean.  
Otsailaren 6a gorritz markatua geratu da gure egutegian. Egun horretan hasi zen gure *ahantzuraren aurkako borroka*, eta horretan dihardugu gaur egun ere, hau da, Alberto eta Joaquinen desagertuena aldarrikatzen eta haien oroipe-na gorde eta iraunarazten.

Radio Euskadin egin zioten elkarrizketan esan zenez, "luizia gertatu baino lehen eta ondoren Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailak, legean oinarrituz, eduki duen jokabidea tatxarik gabea" izan da. Horrekin batera, berak zuzentzen duen sailak azken hiru hilabeteetan "sekulako lana" egin duela eta lehen tasuna biktimak topatzea dela azpimarratu zuen.

Elena Moreno Ingurumen sailburuordea eguaztenean egon zen Zaldibarko zabortegean, joan den otsailaren 6az geroztik Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Planingintza eta Etxebizitza Saila bertan egiten ari den erreskate- eta egonkortze-lanak gainbegiratzen. Bere berbetan, "hiru hilabete igaro dira Verter Recycling enpresaren

zabortegean izandako luiziak eragin zuen tragedia hartatik, eta gelditu ere egin gabe ari gara Alberto Sololuzeren eta Joaquin Beltranen gorpuen bila. Egun bakar batean ere ez diegu utzi bilaketa-lanei, eta horretarako ekipo eta baliabide guztiak jarri ditugu".  
Horrez gainera, gogoratu du luizia izandako 4 leku ezberdinetan ari direla aldi berean la-

nean: alde batetik, desagertuta dauden bi pertsonak bilatzeko eta, bestetik, egonkortze-lanak egiteko. Era guztietako hogeiki makina baino gehiago ari dira lanean: atzerako hondeamakinak, bulldozerrak, bahetzeko makinak, eta abar, bai eta hainbat eta hainbat kamioi ere materiala pilatzen. Egunero ehun bat pertsona aritzen dira lanean zabortegean. ■



Eguaztenean horrela ikusten ziren zabortegiko lanak airetik.



**MAK**  
**CARROCERIAS**

Matsaria, 2  
3 Pabilioia  
-Eibar-

**Pintura (labean lehortua) Txapa**  
**Neumatikoak Mekanika**

943 208 502 [carrocerias\\_mak@hotmail.com](mailto:carrocerias_mak@hotmail.com) 699 203 791

**Izaga** ileapaindegia

txaltxa zelai I, beheko lokala  
aurre-zita: 943204124



Cristina Monge, Daniel Innerarity eta Juanjo Alvarezek hartu zuten parte.

# Koronabirusaren ondorengoak aztertu zituzten "Eta orain, zer" ekimenean

Kutxa Fundazioak *Eta orain, zer* ekimena jarri du abian Gubernance- Gobernantza Demokratikoaren Institutuarekin batera. Gipuzkoatik irekitako gunea da guztion eskura dagoen topagune hori, gure gizarte zibileko pertsonen eta erakundeek ekintza kolektiboaren hausnarketan eta antolaketan ardaztua. "Mundua koronabirusaren ostean" gaiari jarraituz, lehenengo solasaldia apirilaren 22an izan zen. Bertan zikloaren koordinazio arduradunek hartu zuten parte: Daniel Innerarity filosofoak, Cristina Monge soziologoak eta Juanjo Alvarez Zuzenbide irakasleak.

Jarraian bertan aipatutako hainbat puntu interesgarri.

**Innerarity:** Aurretik ere izan dira krisiak; hor ditugu klimatikoa, migratorioa edo finantzarioa, esaterako. Ondo ekipatuta ez gaudela eta identifikatzen ez dakigula erakusten digutenak. Krisiaren erdian, kontradikzioak sortu zaizkigu osasun eta ekonomia ikuspuntuetatik. Ondorio moduan ikasi egin behar dugula geratzen zaigu, normaltasun berri batera heltzekotan. Estatuak indartu

dira, guztion mundu batera joan beharrean.

**Monge:** Egoerak aldatu gaitu eta krisiarekin beste batzuk gara. Argi ikusi dugu zaugarriak garela -hilezinak izaterako bidean geundela uste genuenean-, elkarren arteko menpekotasuna dugula ikusi dugu eta, azkenik, ezjakinak bihurtu gara, ezagutzaren gizartean bizi arren. Hori dakigunez, aldatzen goaz. Ez dugu

ziurtasunik, ulertu nahi dugu. Mundu digital honetan, non egon da petrolioaren kupelaren prezioa negatibora jaitsiko zela zioen ekonomilaria?

**Alvarez:** Genituen itxaropenak pikutara doazenean ezin dugu egin egitegatik, ziurtasun eza kudeatu beharra dago. Krisi honi lokaletik egin behar diogu aurre, etorkizuna hobeto moldatzeko, diziplina eta kritika baztertu barik. Eta kultura oina-

rizkoa da bat etortzeko, 'buenismotik' aldenduz. Esatetik egitera eman behar dugu jauzia, umiltasunez eta hausnarketaz baliatuz. Birusa zientzialarientzat da, guk gizarte-esparruak berreskuratu behar ditugu.

**Innerarity:** Krisitik ikasiko dutenak izango dira. Batzuk aurretik ziotena berretsi besterik ez dute egingo, 'azkarrak' ziren eta direlako. Ikasteko prest egon behar gara beti.



## "Gobernuak ez dira gutaz fidatzen, eta ideia batek hegan egiteko gurea bailitzan sentitu behar dugu" (Alvarez)

**Monge:** Baina elkarrekin ikasi behar dugu, etorkizunerako proiektioak egitea ia ezinezkoa delako. Ekonomia globala izozkailuan sartu dugu eta atea zabaldu arte ez dakigu zer gertatuko den bertan. Begiratu eta eztabaidatzeko ordua izango da.

**Alvarez:** Erreminta-kaxa hartu eta funtzio katartikoa izango da gurea. Irailaren 11-koaren ondoren batzuk III. Mundu Gerra aipatu zuten, aurretik kapitalismoaren birfundazioa ere aurrikusi zutenak izan ziren. Orain ezin dugu kudeatu eta krisitik irtenaldi berean. Proiektu zehatz baten alde egin behar dugu, jendea

errespetatuz, baina gobernuak ez dira gutaz fidatzen. Eta ideia batek hegan egiteko, gurea izango balitz bezala sentitu behar dugu. Zintzoak izanda ere, diziplinatuak izan behar dugu. Beste gizarte bat behar dugu, ez menpekoei diruz laguntzen dien aita Estatuak.

**Innerarity:** Zergatik erreazionatu dugu hain azkar oraingoan, protestatu gabe, eta ez ditugu gure jarrerak aldatzen al daketa klimatikoaren aurrean, azken hau askoz ere arriskuatsuagoa izanda? Moldagarriak gara arriskua aurrean dugunean, baina gure ondorengoei gertatuko zaienak ez digu axola.

**Monge:** Bagozikasten: plastiko eta hondakinen aurrean mugitzen hasi gara, kutsadura atmosferikoa ere hasi gara ikusten. Baina aldatzeko gizartearen partehartze aktiboa behar dugu, bere burua antolatzeke gai dena.

**Alvarez:** Pesimistatzat dut nire burua, baina baita eragin-kortzat ere. Lidertza behar-beharrezkoa dugu, konfidantza izatea, antitesia paralisia ez bihurtzeko. Gizartearen parte sentitu behar gara eta besteen beharra dugula onartu. Gure gizartea, euskaldunona, kohesionatuta dagoela esango nuke.

### GALDEREN TARTEA

#### Deslokalizazioa lehengoratu eta industria iraultza berri batera jo beharko genuke?

**Monge:** Izan daiteke. Arnasgailu eta maskarillekin izandako arazoen erakutsi dute Europari berrindustrializazioak eskutik ihes egin diola. Baina desberdintasuna ez da gaur egungo kontua, nahiz eta krisiarekin gehiago nabarmendu den.

**Alvarez:** Zein puntutaraino krisia ez da gehiago soziala ekonomikoa baino? Eta teknologia berriek zenbateraino handiagotzen dute tarte hori? Gure esku dago inertzia horiei freno jartzea. Profesio guztiak dira duinak, salarioak dira duinak ez direnak. Bere lana hobeto egin nahi duen edonork duintzen du bere jarduerak. 4.0 iraultzak gure etorkizunaren jabe egiten gaitu, baina mundu digitalak ez du zertan aurrekoa baztertu behar.

**Innerarity:** Krisi honek ez dakit balioko digun gizatiarrago bihurtzeko. Krisi unek aukerak sortzen dituzte, baita kale egiteko ere. Epe motzera bakoitzak bere buruari begiratzen dio, gero jarrera hori aldatu arren: Alemaniak hasieran ez zizkion arnasgailurik eman Italiari, bai-

**JOSTAILU HEZIGARRIAK  
ETA  
SORMENEZKO PAPERAK**

**Zorionak  
Kids & Party**

**ETXERAK  
688 876 518**

**BIDALKETA**

**GUTXIENENKO ESKAERA DOANEKO BIDALKETARAKO:**

**EIBAR 25€  
GUTXIAGOKO ESKARRAK 50€**

**PENINTSULA**

**ZURE OPARIA ZURE URTEBETETZE EGUNEAN...!!**

[www.Ludotekazorionak.com](http://www.Ludotekazorionak.com)



## "Txinak hobe zuen informazioa bere unean ematea maskarillak sasoz kanpo bidaltzea baino" (Innerarity)

ipurdia bistan laga digu. Erronkek hor jarraitzen dute.

### Nondiknora joko du aurrekontu komunitarioak?

**Alvarez:** Ezer ez egitea, Europa ez egitea, garestiagoa da. Orain lau astetan lortu duguna ez genuen lortu 2008ko krisiaren ondorengo lau urtetan. Erabakiek Europako 27 herrialdeak hartu behar dituzte, ez 17 bakarrik, aurrekontu komunitarioa egite-rako orduan. Eta proiektua konpartitua izan behar da. Herbehereek ezin dute zinismoarekin jokatu, paradisu fiskala bihurtu direnean Europa barruan. Guztiok zordunak bagara, orduan topatu dezakegu irteera.

**Monge:** Gizalegezkoagoak izan behar gara, esklabotasuna baztertuz. Krisi tragikoenetan, norgehiagokak aurrea hartzen dio susperraldiari. Horren kontra jo behar dugu, elkarlana borrokaren aurka sustatuz. Kaltetuak guztiok garenean hor dugu batzen gaituen argamasa.

### Demokraziak indarra galdu dezake, ikusita Txinak eman duen eredua?

**Innerarity:** Eztabaidarik gabe agintaritzari men egiteak ez dakar ezer onik, ez da eraginkorra goa. Txinak, gainera, oso txarto jokatu du: birusa globalizatu digu, baina informatu gabe, ez han ez hemen. Hobe zen beharrezko informazioa sasoz ematea sasoiatik kanpo maskarillak bidaltzea baino. Bakarrik berri onak kaleratzea ez da ona. Informazio gehiena eskaini behar da, horrek sesioa sortu arren. ■



## "Egoera honen aurrean argi ikusi da zaurgarriak, elkarren menpekoak eta ezjakinak garela" (Monge)

na gero hango gaixoak hartu zituen. Koronabonoekin ere, orain behintzat planteatzeko gai izan gara; aurreko krisian ez zen halakorik gertatu. Interes eta mehatxu bera dugunean elkar hartzea errazago da.

### Krisia poliedrikoa da? Ikuspuntu askotarikoa?

**Alvarez:** Europako herrialdeak solidarioak dira euren biztanleei begira bakarrik, eta laguntza hori behetik goranzkora doanean izango da konponbidea. Europan ez dago nazioen arteko demokraziarik, ez dago kohesiorik. Estatuak, bestal-

de, txikiegiak dira eta politika eraginkorrak behar dira guztiak kohesionatzeko. Hemengo kooperatibek Txinan zabaldu dituzten enpresak, zergatik ez hemen?

### Zer egin daiteke globalizazioarekin?

**Innerarity:** Zergatik ez berdimentsionatu, autarkian erori gabe? Italian enpresa bakarra dute arnasgailuak egiteko eta gobernantza maila egokiak autosufiziente izatea eskatuko luke. Zientzian, ordea, zenbat eta globalizazio gehiago, hobe guztiondako. Guztion arteko

harremana horizontalagoa izan behar da, `nik agintzen dut´ ez dago modan, errespetua beharrezkoa da. 77ko Moncloako paktuak gaur ez du zentzurik, zazpi lagun arteko kontu hori... gainera, guztiak gizonetzkoak.

**Monge:** Globalizazioa beti singularrean aipatzen dugu, baina askotarikoa gertatu da, desindustrializazioak politikatik urrundu gaituen neurrian. Badiara beste globalizazio batzuk, norabide asko hartzen dituztenak. Zientzian eta teknologian bazirudien guztia konpontzeko gai zirela, baina zomorronek



## ELENA ZELAIA ALZOLA

2020 / 04 / 08

**Ez adiorik, ez agurrik, gero arte baizik.**

**EZ ZAITUGU INOIZ AHAZTUKO**

**GUREAK LANTEGIKO LAGUNAK**



Nahi bezain urrun  
iristeko aukera  
[www.aldatze.eus](http://www.aldatze.eus)

AURREMATRIKULA

K



ALDATZE

Col. Sta. M<sup>a</sup> de la Providencia  
ALDATZE Ikastetxea  
Aldatze kalea, 5 20600 EIBAR  
Tfnoa. 943 70 11 50 [www.aldatze.eus](http://www.aldatze.eus)



aldatze  
haur-eskola

American High  
School Diploma  
[www.academica.school](http://www.academica.school)



aldatze  
batxilergoa

# Zergatik erosi herriko dendetan ?

# Denok irabazten dugulako

- 1 Herriko ekonomiari laguntzen diogulako.
- 2 Eibarrentzako aberastasuna sortzen dugulako.
- 3 Gure herria bizirik mantentzen dugulako.
- 4 Komunitatea indartzen dugulako.

# # Eibarren badakagu





## #SOSPRESOAK COVID19

<<< IXIDRO GABIRONDO eta IÑIGO MUÑOA • Sare Herritarrak-eko kideak >>>

# “Oso gogorra da bisitak berriro noiz hasiko diren ez jakitea”

Koronabirusak bete-bete eragin die presoeri. Bisitarik gabe eta, beraz, arnas-gunerik gabe gelditu dira. Senide eta hurbilekoek ez dakite noiz arte itxaron beharko duten. Kanpoko guztiei itxi dizkiete espetxeko ateak. Espetxera eta espetxetik «sartzen eta ateratzen diren bakarrak funtzionarioak» omen dira. "Sare Herritarrak"eko Ixidro Gabirondo eta Ibon Muñoa preso eibartarraren Iñigo anaiarekin egin dugu berba presoeren egoeraz.

COVID-19ak eragin duen konfinamendu-egoera dela eta, presoeren senideak ezin daitezke espetxetara joan bisitan. Une hauetan presoeren eta senideen kezka nagusia osasuna da: "Espetxetan osasuna beti izan da gai kezagarria. Kalean edozein huskeria izan daitekeena han asko luzatzen eta korapilatzen da", dio euskal preso, iheslari eta deportatu guztien giza eskubideen alde lan egiten duen SARE herritarren mugimenduko Ixidro Gabirondok.

Konfinamendua indarrean sartu zenean, "hasieran higie-neurrik hartu gabe" ibili omen ziren, eta Ibonen kasuan (Kordobako espetxean dago), azkenean patiora irterera behartu zituzten, egoera ikusita egun batzuetan zelda barruan geratzea erabaki zuten arren. "Guk dakigula, funtzionario batek, gutxienez, positibo eman du", dio Iñigok, "eta funtzionario batzuk, ez denak, maskara barik ateratzen ziren patiora. Ibon eta besteak zeuden ingurura hurbiltzen

ziren, segurtasun-neurriak bete barik".

### Bisiten zain

Ibon ongi dagoela jakiteak indarra ematen die senide eta lagunei. Hala ere, bisitarik gabe gelditu izana ez zaie erraza egiten ari. Telefono bidez eusten diote harremanari, "lehen baino gehiago", dio Iñigok. "Bisitarik gabe gelditu izanaren truke, estatu espainiarrean presoeri bideo-deiak egiteko aukera eskaini diete, baina "hori teorianta, eskura dituzten baliabideak oso eskasak baitira. Pentsatu zelan ibiliko diren, espetxe askotan preso guztientzako bideo-deiak egiteko lau gailu besterik ez badaude! Gainera, espetxe bakoitzak bere arauak ditu, eta batzuetan debekatuta dago".

Bi hilabete daramatzate bisitarik gabe. Egoera luzatzen ari denez, "ezjakintasun horrekin" bizitzea tokatzen ari zaie: "Auskalo noiz joan ahal izango garen! Bisita noiz izango dugun dakigunean data horri begira egoten gara, baina orain ez dakigu ezer".

## "Espetxeak oso leku arriskutsuak dira pandemia egoera honetan"

### Nazioarteko erakundeek gomendioak

Sare Herritarrak taldeko Ixidro azaldu digunez, "Nazioarteko erakundeek egindako gomendioak eta neurriak ez dira hartu Espainiako Estatuan. Koronabirusaren pandemiak sortutako egoera larriaren aurrean Europako Kontseiluko Giza Eskubideen komisarioak edo Nazio Batuen Goi Komisarioak ahalik eta bizkorren presoak aske uzteko eskatu die gobernuari". Horiek diotenez, ahal den neurrian kartzelak hustu egin behar dira, "oso leku arriskutsuak baitira pandemia-egoera honetan".

Ixidrok azaldu digunez, "aholku asko eman dituzte baina egin den bakarra bisitak kentzea izan da. Guk uste duguna da gutxienez larriki gaixo dauden presoak, adin aurreratuak edota urte luzetako espetxealdiak beteta dituztenak kaleratu beharko lituzketela". Eta hor sartzen da Ibon Muñoa: "Bost hilabete falta zaizkio kondena betetzeko, urrian irtengo da". 20 urte beteko ditu kartzelan eta denbora guztian lehen graduan egon da, isolamenduko egoeran.

### Egoera gogorra

Egoera hau oso gogorra egiten da. Presoentzako eta senideentzako bisitak ezinbestekoak dira. "Hor sortzen da benetako harremana. Telefono bitartez asko mugatzen da elkarren arteko hartueman hori". Ibonen kasuan, gainera, "beti esan dugu kondena hiru laurdenak aspaldi bete zituela eta legedi arruntarekin eskubidea edukiko lukeela baldintzapeko askatasunean egoteko". Beraz, are gogorragoa oraindik.



Argazkia ateratzen ari ginenean Ibon anairen deia jaso zuen Iñigo Muñoak. Bost hilabete falta zaizkio kondena betetzeko. Beraz, urrian irtengo da.

Presoak ere arduratuta daude etxekoen eta herriarren egoerarekin eta osasunarekin, eta eurentzako hain garrantzitsua eta informazio-iturri den egunkaria ez dute jasotzen. "Ibonek irratia entzuten du gehienbat", dio Iñigok. Konfinamendua hasi zenetik presoek idazteko deia egin izan dute senideek. "Hemengo berri gustura hartzen dute", gaineratu du Ixidro. "Maiatzaren 18an Ibonen urtebetetzea izango da, 62 urte egingo ditu, eta eibartar guztiak animatu nahi zaituztet postal edo gutun bat idaztera".

Bestalde, Gabirondok jakinarazi digunez, COVID-19ak hankaz gora utzi du Sarek aste hauetarako aurreikusita zuen

ekitaldi berezi bat. Pandemiarekin dena pikutara joan da, "baina hau konpontzen denean jarriko da martxan, ahal den neurrian". Eibartarrei ekimen horrekin bat egiteko deia egin die.

#### **Espetxeetako egoeraren salaketa egin dute**

Salhaketak, Sarek eta Etxerategi aste honetan egindako prentsaurrekoan koronabirusaren krisiari espetxeetan aurre egiteko neurririk ez dela hartu salatu dute, eta dei egin diete eragile politiko, sozial eta sindikalei "Espainiako kartzeletako koronabirusaren kudeaketaren salaketa" adierazpenarekin bat egin dezaten. "Orain dela gutxi

## **"Egoera hau oso gogorra da, eta ez dira kontuan hartu nazioarte mailako erakundeen gomendioak"**

hiru presori graduan aurrera egiten utzi dieten bezala, kondena betetzear dutenei edo gaixotasun larriak dituztenei graduan aurrera egiten uzteko

eta euren etxetara bidaltzeko eskatzen diegu berriro ere Espetxe Erakundeei".

Manifestuak jasotzen duen kritika-zerrenda luzea da. Besteak beste, diotenez, "testa egiteko aukera ez zaie eman espetxeratu guztiei eta espetxeetako funtzionario guztiei; osasun-arretari dagokionez, espetxeetara egokitutako prebentzio- eta laguntza-egitasmorik ez da diseinatu eta are gutxiago aplikatu; ez da bete intimitaterako eta tratu duinerako eskubidea bermatzen duen eta zelda bakoitzean pertsona preso bakarria eduki litekeela dioen legezko araua; senideekin komunikazioa ez da beti bermatu..." ■



## **MIREN BEGOÑE MAIORA GONZALEZ DE AUDIKANA**

2020-4-13

**"Irrintzi bat entzutean beti zugaz gogoratuko gara" ZURE SENIDEAK**



&lt;&lt;&lt; JULIAN ERASO • OCETAko presidentea &gt;&gt;&gt;

# “Itzulia eta Klasikoa datorren urterako lagatzea da egokiena une hauetan”

Itzulia Basque Country eta Donostiako Klasikoa lasterketek aurrera egin zezaten hainbat astetan lanean gogor aritu ondoren, azkenean OCETAko antolatzaileek datorren urterako atzeratu dituzte aurtengo edizioak. Julian Eraso taldeko presidentek orduak sartu ditu egoerari modu onenean heltzeko eta, azkenean, "datorren urterako gauzak aurreratuta ditugula" onartzen hasi da.

## Zeintzuk izan dira lasterketak bertan behera lagatzeko arrazoi nagusiak? Segurtasun eza? Diru kontuak? Osasuna?

Azkenean denek bat egin dute, lehenengo osasun arazoa izan bada ere. Txirrindularitza gidatzen duen UCI erakundea lasterketak egutegitik kentzen hasi zenean, Itzulia ere atzeratzea pentsatu genuen. Volta eta Tirreno-Adriatikorekin hasita, beste hainbat proba kentzean egutegian ere ez zen tarte handirik geratzen, baina bazuten interesa gure proba egiteko. Lau-bost aldiz izan gara eurekin eta, Tourrera begira, gure lasterketa eta Dauphine Libere egitea oso ondo ikusten zuten. Bazegoen hor aukera abuztuaren bigarren astean Itzulia egin, zapatuan amaitu, eta hurrengo egunean Donostiako Klasikoari ekiteko, epai-mahai berarekin. Etaba hasiera eta amaierak hartzen dituzten Udalek ere prest egonda, erakundeetako dirulaguntza jasotzea bizi dugun egoeran ere zalantzak sortzen



**denolan, s.l.**  
ENPRESA AHOLKULARITZA

Tfnoa: 943 74 18 00  
Faxa: 943 74 17 60

**P.M. Urruzuno, 31 (ELGOIBAR)**

Tfnoa. (4 linea): 943 20 16 80

Faxa: 943 20 18 41

e-maila: denolan@denolan.es

**Muzategi, 1 (EIBAR)**



**ASEGURU  
ARTEKARITZA**

**Muzategi, 1 (EIBAR)**

Tfnoa: 943 20 16 80

Faxa: 943 20 18 41

zizkigun, diru hori beste gauza batzuetarako beharko delako. Eta garrantzitsuena, zelan ziurtatu osasun-neurriak? Jendearen arteko distantzia, mendatetik pasatzea... Hori ez da txirrindularitza, zaleak horrela ezin duelako gozatu. Azken saiakeraren ondoren, UCIkoek ere ulertu zuten gure erabakia eta sentitzen zutela esan ziguten.

### Datorren urterako datak eta helmugak zehaztuta dituzue? Udal guztiak ados daude jarraitzeko?

Bai. Itzulia apirilaren 5etik 10era jokatu da, horrela dago egutegian, eta Donostiako Klasikoak San Ignazio egunean, uztailearen 31n. Klasikoarekin arazoa izan dezakegu emakumeen lasterketarekin, egun horretarako Tourra amaitu gabe egongo delako. Joko Olinpikoak datorren urterako geratzeak horrelakoak ekarri dizkigu. Eta gizonezkoen lasterketaren data aldatzen badugu, lasterketaren identitatea galtzeko arriskua dago. Ea zelan egiten diogun aurre.

**Denboraldi honetan zein proba uste duzue jokatu direla? Hiru handiek aurrera egongo dute?**



Ion Izagirrek irabazi zuen iazko edizioa. Untzagan, txaloak jasotzen.

Munduko txirrindularitza Tourrari begira dago beti eta berau jokatu den oraindik ezin dugu ziurtatu. Frantziako gobernuak esan du abuztuan ez dela kirol-probarik jokatu,

baina Tourra hilabete horretako 29an da hastekoa. Bestalde, badirudi Giroa amaitu aurretik hasiko dela Espainiako Itzulia. Hori guztiori aste honetan onartutako egutegiari jarrai-

**"Jarraitzaileak gertu ez dituen txirrindularitza ez da txirrindularitza"**

**"Eibar Itzuliaren antolatzaileen bihotzean eta buruan izango da beti"**

tuta, baina koronabirusarekin kontuz... Alemaniako foballean hasi dira positiboekin, batek daki! Ez dakit egokiena ez litzatekeen izango dena bertan behera lagatzea. Behobian muga itxita dugu uztailearen 24ra arte. Edozein probatan EEBBetako, Australiako, Afrikako... txirrindulariek hartzen dute parte. Zelan bermatuko duzue Osasuna? Zelan egiten dituzue testak?

### Espainiako Itzulia Iruen hasiko da eta Arraten amaituko urriaren 20an. Izango dugu proba hori?

Espero dezagun ordurako gauzak hobetzen joatea, hori hurrengo urteari begira ere mesedegarria izan daitekeelako. Ea Valenciaga Memoriala ere jokatzeko den, urriaren 11rako dago iragarrita.

### Eibar Itzuliaren protagonista izaten jarraituko du?

Euskal Bizikletak eta Itzuliak bat egin zutenean espirtu horrekin abiatu ginen, konpromisoa bihurtuta. Bicicleta Eibarresa eta Arrate Igoera historian daude, eta Udalarekin ondo konpontzen gara. Horregatik, Eibar antolatzaileen bihotzean eta buruan izango da beti.

**FUNEUSKADI**  
Grupo Asistea

**FUNERARIA MUGICA**  
Funeuskadi

**TANATORIO EIBAR**

**TANATORIO CREMATARIO ELGOIBAR**

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951  
[www.funeuskadi.com](http://www.funeuskadi.com)

<b>Eibar:</b> Otaola, 27	<b>Elgoibar:</b> Xixilion, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
<b>Eibarko bulegoa:</b> Bidebarrieta, 20	<b>Ermuako bulegoa:</b> Marqués de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao  
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

**KENKO**

ZURE OSASUN GUNEA  
BERRIRO ERE ZUEKIN!

ESTAZIÑO KALEA 8 BEHEA 20600 EIBAR  
622145858 WWW.KENKOGUNEA.COM





## Konfinamendu osteko elikadurari buruzko hitzaldi birtuala egingo da martitzenean

Gaur egun bizi dugun egoera berezira egokitzen jarraitzen du ...eta kitto! Euskara Elkartek, eta Illunabarrian programak ere bere jardunari ekingo dio. Datorren maiatzaren 12an, martitzena, *Elikadura planifikatu konfinazio ostean* izenburuko saioa egingo da, arratsaldeko 18:00etan. Hitzaldi birtuala izango da, hau da, online jarraitzeko modukoa, *Jitsi Meet* aplikazioaren bidez. Mireia Alberdi nutrizionista hainbat gomendio emango ditu, poliki-poliki konfinamendutik irteten gauden honetan gure elikadura nola planifikatu dezakegun azaltzeaz gain.

Udari begira "miraririk" ez du agintze, baina, hala ere, beti hobetu dezakegu zerbait eta berak hainbat ohitura aldatzeko eta etxean sartuta egon garen bitartean ikasitako gauza asko *des-ikasteko* proposamenak emango ditu, besteak beste. Elikadurari buruzko saioan

parte hartzeko izena ematen dutenek galderak egiteko eta zalantzak adierazteko aukera izango dute, eta Mireiak momentuan eta gogoz erantzungo die gainera. Asko jota 12ko taldea osatuko da, "parte-hartzea errazagoa eta dinamikoa izan dadin". Izena emateko mezua bidali beharko da, [elkartea@etakitto.eus](mailto:elkartea@etakitto.eus) helbidera, maiatzaren 11rako (edo toki guztiak bete arte).

Mireia Alberdi nutrizionista bergararra aurretik ere izan da Eibarren ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik. Hain zuzen ere, urte honen hasieran *Tupper osasungarriak* ikastaroa eman zuen Portaleko sukaldean eta oso harrera ona izan zuen saioak. Orduan ere aste osorako tupperrak nola prestatu eta antolatu azaldu zuen tailer praktikoko batean eta parte hartu zuten guztiak pozarren bueltatu ziren etxera, ikasitakoa praktikan ipintzera.



## Aitor Errasti abeslaria hil da

Astelehenean hil zen Voces y Cuerdas taldeko Aitor Errasti Olalde (argazkian goian, eskuman) eta bere heriotzarekin pena handia hartu dute eibartar askok. Gurean horrenbeste zaletu izan dituen Hego Amerikako musika talde ezagunean, abesteaz gain, perkusioaz ere arduratzen zen Errasti. 2012az geroztik Marivi Murillo (ahotsa), Vicente Ramirez (gitarra eta ahotsa) eta Alberto Alberdi (rekintoa) izan zituen taldekide Errastik. Aurretik Cristal 4 taldean egon zen eta, azken aldian, parrokiako abesbatzan kantatzen zuen. Besteak beste Eibar Kantuan jaialdian, San Juan jaietan eta Coliseo antzokian aritu zen Errasti behin baino gehiagotan. Lerro hauen bitartez familia eta lagunei gure atsekabea adierazi nahi diogu. Goian bego.

## Sanjuanetako kartel lehiaketa

Eibarko Udalaren Kultura Batzordeak San Juan jaietarako kartel lehiaketa antolatu du. Lanak entregatzeko epea maiatzaren 25ean (gauerdian) itxiko da eta, oraingo honetan, lehiaketarako lanak bakarrik elektronikoki aurkeztu daitezke: [www.eibar.eus](http://www.eibar.eus) Eibarko Udalaren web orrian sartu eta bertan erantsi beharko da kartela, formatu digitalean (JPG formatuan, 300 ppp-ko bereizmenarekin). 15 urtetik gorako kasuan, NAN formatu digitalean erantsi beharko da, gainera. Antolatzaileek argi laga dutenez, emailz bidalitako lanik ez dute onartuko.

Gaia, kolorea etab. egilearen aukerakoak izango dira, baina kartelean derrigorrez agertu beharko da *Sanjuanek Eibarren 2020* esaldia. Saria 600 eurokoa izango da eta, horrez gain, bi sari berezi egingo dira haurrentzat (10 urtera arte eta 11-14 urte bitartekoak). Lehiaketari buruzko informazio guztia eta parte hartzeko bete beharreko baldintzak Udalaren web orrian ([eibar.eus](http://eibar.eus)) kontsultatu daitezke.



**YOKASTA**  
manikura-aretoa

943 38 61 97  
Calbeton, 22-24

MANIKURA  
5 €tik hasita

PEDIKURA  
10 €tik hasita

zure azazkalak  
zure espresibidea

NEW  
A DOMICILIO  
& TAKE AWAY  
T. 943 56 72 06

ORDUTEGIA  
ostegunetik igandera  
19:30etik 23:30era  
Errekatu, 1

**HIRUROK**  
BRASS

100 etxekua  
producto KMO

by Iñigo Beristain



# Euri zaharraren gainean euri

Gizartearen gehiengoak egoera larria bizi du. Koronabirusak bitzita asko kolpatu ditu. Kolpe latza. Euri zaharraren gainean euriak dihardu eibartar askorentzat. Orainaldiko eta etorkizuneko hodei ilunak argitzeko beharrezkoak diren tresnak eskaintzeko lanean dihardu Gizartekintza Sailak, inoiz baino gehiago.

**E**ibartarren bizi-kalitatea hobetzeko, eta gizarte-zerbitzuen sistemak ase ditzakeen behar sozialak antzemateko eta erantzuteko helburua du Gizartekintzak. Izan ere, gizartea antolatzeke dugun moduak ez ditu pertsona guztion oinarritzko premiak asetzen; ez koronabirusaren aurretik, eta are gutxiago orain.

Alarma-egoerak Gizartekintzako langileen lan-karga handitu du. "Pertsonen eta familien premiei erantzuteko zerbitzuei eutsi egin diegu, eta horri gehitu behar izan zaio baliabide ekonomiko urriak dituzten pertsonen oinarritzko

premiei erantzuteko lana", esan digu Jaione Azkue Gizartekintzako zuzendariak. Gainera, 65 urtetik gorako 1.785 eibartarri deitu behar izan diete, nola dauden jakiteko.

Azkuek dioenez, lehendik ere ekonomia- eta lan-prekarietate egoera batetik zetozenak dira orain gehien sufritzen ari direnak. "Baina beste populazio talde bati ere eragin dio. Izan ere, lehen eguneroko gastuei aurre egiteko diru-sarrerak zizutzen hainbat lagun edo familiari, pandemiak ABEE edo langabezia ekarri die".

Azkuek kalean bizi diren pertsonengan ere jartzen du arreta.

## "Lehendik ere prekarietate ekonomiko eta laborean zeudenak dira gehien sufritzen dutenak"

"Ostatu hartzeko aukerak eskaini zaizkie".

Osasun-larrialdiak Gizartekintzaren ohiko jarduna aldatu du eta martxan zizutzen

hainbat zerbitzu eten behar izan dituzte. "Eman ez diren zerbitzuak programa komunitarioekin lotuta daude, baina herritarrei arreta emateko zerbitzuei eutsi diegu".

Laguntza guztia beharrezkoa izango da egoera hau gaintzeko, eta Eusko Jaurlaritzak gizarte-larrialdietarako laguntzen partida ekonomikoa handitu du dagoeneko. "Denok dakigu beste krisi baten aurrean gaudela eta, aurrekoan bezala, aurrera egitea besterik ez dugu". Beraz, egoera honi aurre egiten laguntzeko, hartzen diren neurrien berri emango dutela dio Azkuek.

## Teodora Iriondo Sodupe

2020 - 04 - 28

**"Laurogeita hamahiru urte badira Elgoibarren jaio zinela. Gaur arte beti irribarretsu, goxoa eta epela. MAITE ZAITUGU, AMA"**

Zure alabak



943 20 09 18

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20 ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, **JULEN**, txapeldun! Astelehenian 4 urte egingo dozuz-eta. Patxo haundi-haundixa etxekuen partez.



Zorionak, **JULEN**, apirilaren 30ian 9 urte bete zenduaz-eta. Patxo pillua famelixa guztiaren partez!



Zorionak, **ANDER!**, astelehenian 5 urte beteko dozuz-eta! Ondo pasatu zure eguna! Amama, aita, aita eta, batez be, Danelen partez.



Zorionak, **AMAMA!** Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez. Laster ospatuko dogu!



Zorionak, **MALEN**, hillaen 3an 4 urte bete zenduaz-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, **ANDER**, apirilaren 27xan 3 urte bete zenduaz-eta. Musu potolua etxekuen partez.



Zorionak, **JULEN!!!** Hillaen 3an 6 urte bete zenduaz-eta. Patxo pottolua etxekuen eta, batez be, Maddiren partez.



Zorionak, **ENAUT**, astelehenian 9 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat etxekuen eta, batez be, Ekhi eta zure lehengusuen partez.



Zorionak, **ESTHER**, bixar urtiak beteko dozuz-eta. Jarraitu beti bezain alai. Musu potolo bat etxekuen partez.



Dozena bat zorion, **MANEX!** Dozenaka bider ospatzia merezi dozu! Musuak famelixa guztiaren partez



Zorionaaak, **MIKEL**, famelixa guztiaren eta, batez be, JONen partez!! Musu potolo bat!



Zorionak, **NAIKE**, hillaen 2xan urtetxua egin zenduan-eta! Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, LUR-en partez.



Zorionak, **MAIALEN** (martxuaren 21ian 11 urte) eta **IBAI** (apirilaren 26xan 9 urte). Musu haundi bana, famelixa guztiaren partez.



Zorionak, amatxo **LEIRE** (39) eta **POL** (1), martitzenian urtiak bete dozuez-eta. Besarkada bat famelixaren eta, batez be, Pello eta Nilen partez.



Zorionak, **IKER**, atzo 7 urte bete zenduazelako. Musu bat famelixa guztiaren eta, batez be, Oihanen partez.



Zorionak, **CAROL**, etxeko printzesak hillaen 6xan 5 urte egin zittuan. Aiton-amona eta famelixaren partez, laister ikusteko gogoz.



Zorionak, **MARIA!**, astelehenian 6 urte beteko dozuz-eta! Ondo pasatu zure eguna! Famelixa guztiaren partez.

## PEDRO AZPIRI GALLASTEGI

“EIBAR” PILOTARI-OHIA (2010/05/08)

“Hamar urte badira joan zinenetik, baina zure irribarreak gure oroimenean jarraitzen du. Zure argiak betirako distira eskaintzen die gure bihotzei. MAITE ZAITUGU”


Zure emaztea, seme-alabak eta bilobak



## Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

## Eguraldia (euskalmet.net)



## Farmaziak

### BARIXAKUA 8

EGUNEZ | Zulueta (San Agustin, 5)

### ZAPATUA 9

EGUNEZ | Morgado (San Agustin, 3)

### DOMEKA 10

EGUNEZ | Castaño (J. Etxebarria, 7)

### ASTELEHENA 11

EGUNEZ | Azkue (T. Etxebarria, 4)

### MARTITZENA 12

EGUNEZ | Barandela (Z. Agirre, 4)

### EGUAZTENA 13

EGUNEZ | Lekunberri (Isasi, 31)

### EGUENA 14

EGUNEZ | Lafuente (Sostoatarren, 10)

### BARIXAKUA 15

EGUNEZ | Elortza (J. Gisasola, 18)

**GAUEZ BETI**, 2020an,  
Barandela (Ziriako Agirre, 4)

## Hildakoak

- Miren Begoñe Maiora Glez. de Audikana. 89 urte. 2020-4-13.
- Anttoni Maiztegi Sarasketa. 93 urte. 2020-4-27.
- Milagros Sarasketa Oiarzabal. 91 urte. 2020-4-28.
- Teodora Iriondo Sodupe. 93 urte. 2020-4-28.
- Juan Muela Carrero. 92 urte. 2020-4-29.
- Elena Alberdi Loiti. 58 urte. 2020-4-29.
- Jose Iturbe Larrañaga. 92 urte. 2020-5-1.
- Pedro Legarra Garetxana. 94 urte. 2020-5-2.
- Adelaida Larrañaga Berasueta. 90 urte. 2020-5-2.
- Rosarito Arizmendarrieta Trokaola. 94 urte. 2020-5-2.
- Pedro M<sup>a</sup> Arroitauregi Altuna. 90 urte. 2020-5-3.
- Aitor Errasti Olalde. 73 urte. 2020-5-4.
- Jose Abalos Hermosilla. 81 urte. 2020-5-5.

# Denborapasak

		4		6		7	
8	5			4		3	
6		2		1			4
9			6	4			
	4					6	
			3	8			5
7				6		9	3
	9			3		1	6
	2		1			4	

soluzioa

3	2	6	1	7	9	2	2	3
4	9	5	8	3	2	7	1	6
7	8	1	4	5	9	5	1	1
2	6	7	3	9	8	8	1	4
5	4	8	7	2	1	3	9	6
9	1	3	6	5	4	2	8	7
6	7	2	5	1	3	8	9	4
8	5	9	2	4	7	6	3	1
1	3	4	9	8	6	5	7	2

## SUDOKUAK

			8	4		3		
				9		6		1
1	3				5			7
8		6						
5								3
						2		8
6			4				8	5
7		5		3				
		1		8	7			

soluzioa




4	2	1	5	8	7	9	3	6
7	8	5	6	3	3	6	9	1
6	9	3	4	1	2	7	8	5
3	4	9	1	5	6	2	7	8
5	1	2	9	7	8	4	6	3
8	9	6	3	3	2	4	5	7
1	3	4	2	6	5	8	9	7
2	5	8	7	9	6	3	4	1
9	6	7	8	4	1	3	5	2

gaztetxoenendako  
**Denborapasak**

Globoan egindako  
bidaia hau  
margotu  
dezakezu




Aurkitu 7 desberdintasunak



Labirintoa


## EIBARREN ASTEZ-ASTEZ ATZEMANDAKO POSITIBOAK



Grafikoak astero (zapatutik zapatuta) Eibarren atzemandako positibo berriak jasotzen ditu, ez metatuak.

Apirilaren 11tik 18ra bitarteko astean eman zen hazkunderik handiena Eibarren eta ordutik hona jeitsiera nabarmena da. Maitzaren 2ra arteko datuak jasotzen baditu ere, astekari honen itxiera ordura arte (ostegunera arte) ez da positiborik atzeman gure herrian.

## DEBABARRENEAN OSPITALERATUAK



## AITOR ERRASTI OLALDE

2020 / 05 / 04



“Bolero baten erritmorra utzi zara eramaten;  
serenata gozo baten doinura gogoratuko zaitugu”

**Ainhoa**, kuadrilakoak zurekin gaude



## AITOR ERRASTI OLALDE

2020 / 05 / 04



“Zure ahots-kordak arinak, zure hutsunea astuna;  
udaberri minean zure oroitzapen ederra loratuko zaigu”

**Ainhoaren** gelakoak maitasunez



www.irazabal.net



**irazabal**

Jose Maria Irazabal, S.L.

Azitain Industrialdea, 3 - H 943 120108

**KONFIANTZAZ**ko enpresa  
**KALITATEZ**ko lanak  
bezeroarekiko **ARRETAZ** eginda



Eraikuntza

Erreformak

Igeltseritza



## IGELTSEKITZA LANAK ETA GREMIOEN KOORDINAKETA



Zure ingurunea (etxea, bulegoa, tailerra...) aldatu nahi baduzu, **GUK LAGUNDUKO DIZUGU...** gusturago bizitzen eta etorkizun hobez gozaten.

IRAZABAL-EKIN ELKARLANEAN JARDUNEZ GERO, HARRO ESAN AHAL IZANGO DUZU:

**“Hau da nik nahi nuena”**

MUGI  
GI  
MEN  
DU

# KAXA

ONLINE

SOR  
MEN

MAIATZAK 11TIK EKAINAK 5ERA

	17:00	18:30
ASTELEHENA	DANTZA ERDI MAILA	DANTZA GOI MAILA
ASTEARTEA	MUGISORMEN 3-6 URTE	DANTZA FITNESS
ASTEAZKENA	DANTZA ERDI MAILA	DANTZA GOI MAILA
OSTEGUNA	MUGISORMEN 3-6 URTE	DANTZA FITNESS
	11:00	
OSTIRALA	DANTZA FITNESS INIZIAZIOA	

SAIOA AMAITU ONDOREN, IKUSGAI EGOTEN JARRAITUKO DU

Familian eta mimos sortutako proiektua da **Kaxa**.

Espazio libre bat non norberak nahi duena izan daitekeen.

Sortu zure kaxa!

GU  
NE  
A


@kaxagunea

www.kaxa.eus

info@kaxa.eus

689 116 104



Eibar BHI

